KURSAAL ESZENA

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

GIPUZKOA
Kultura

**Laguntzaileak** / Colaboradores:

euskaltel
elektra
Fundación "la Caixa"
LA GULA DEL NORTE

**Enpresa Elkartuak** / Empresas Asociadas:

KUTXA FUNDAZIOA
GIROA VEOLIA
herza
telesonic
ArcelorMittal

**Komunikabide Elkartuak** / Medios Asociados:

SER Radio San Sebastián
eSTRATEGIA [empresarial]
Noticias de Gipuzkoa
eitb

## DATOZEN KONTZERTUAK
## PRÓXIMOS CONCIERTOS

**"Masquarade"**
**Euskal Herriko Orkestra Barrokoa**
**Enrike Solinís,** zuzendaria
**Anna Piroli,** sopranoa
**Bilaka Kolektiboa,** dantza
Grandes arias y danzas del barroco
**Otsaila 28 Febrero / 19:30**

**"Sémiramis / Don Juan"**
**Le Ballet de l'Opéra national du Capitole de Toulouse**
**Ángel Rodríguez, Edward Clug,** koreografiak
**Christoph Willibald Gluck,** musika
**Apirila 12 Abril / 19:00**

**English Chamber Orchestra & Steven Isserlis**
**Roberto Forés Veses,** zuzendaria
**Steven Isserlis,** bilontxeloa
**Maiatza 14 Mayo / 19:30**

**Piotr Anderszewski, pianoa**
**Urria 27 Octubre / 19:30**

**"La Mer"**
**Scapino Ballet Rotterdam**
**Nanine Linning,** zuzendaritza eta koreografia
**Claude Debussy, Yannis Kyriakides,** musika
Ekoizpen berria / Nueva producción
**Azaroa 17 Noviembre / 19:30**

**Ensemble Les Surprises & Véronique Gens**
**Louis-Noël Bestion de Camboulas,** zuz.
**Véronique Gens,** sopranoa
**Azaroa 28 Noviembre / 19:30**

**"Oratorio de Navidad", Bach**
**Collegium Vocale Gent**
**Philippe Herreweghe,** zuzendaria
**Abendua 16 Diciembre / 19:30**


herza

HACEMOS MARCA

CREAMOS COMUNICACIÓN

www.herza.net


KURSAAL ESZENA

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

www.kursaal.eus

# INTEGRAL DE LAS SINFONÍAS DE BEETHOVEN

Auditorio **Kursaal** Auditorioa

**Orquesta de los Campos Elíseos**
**Philippe Herreweghe,** zuzendaria





"Bigarren sinfonia", 1801. eta 1802. urteen artean konposatua, Beethoven goiztiarraren garaikoa da; hala ere, argi eta garbi iragartzen ditu haren heldutasunean nagusi izan ziren energia hedakorra eta kemena. Musikagilea krisi pertsonalean murgilduta zegoen garaikoa bada ere -Heiligenstadten Testamentuan ezin hobeto islatu zuen krisi hura- bizitasun harrigarriko lana da. Kontraste hori, sarritan, barne-baieztapen ekintza gisa interpretatu izan da: Beethovenek, entzumen galerari aurre eginez, argia eta oreka lotzeko nahia iraultzen du sinfonia honetan.

*Adagio molto - Allegro con brio* mugimenduan sarrera handientsu bat eta erritmo bulkada zorrotzeko *Allegro* bat nahasten dira, eta orkestrak energia nabarmenaz dihardu. *Larghetto*a Beethoven gaztearen pasarterik lirikoenetako bat da: melodia baretasunez hedatzen da, etorkizuneko obren lasaitasun bukolikoa gogorarazten duen ehundura garden batek eusten duela. *Scherzo*ak minueto tradizionalaren modernizazioa dakar: izaera biziak, ustekabeko azentuek eta umore erritmikoak aztoraturik utzi zituen garai hartako entzuleak. Amaierako *Allegro molto*ak baikortasun distiratsuz ixten du sinfonia, sinkopa jostalariek eta dotorezia eta kemena uztartzen dituen idazkerak bultzatuta.

Beethovenek berak adierazi zuen "Zortzigarren sinfonia" *fa maiorreko sinfonia txiki bat* zela, baina, txikigarri horren atzean, aparteko kontzentrazio eta asmameneko obra bat dago ezkutaturik. 1812an konposatutako lanak bere baliabideen jabe erabatekoa zen Beethoven bat erakusten du, originaltasunari uko egin gabe tradizio klasikoarekin jolasteko gai dena. Hamarkada bereko beste lan batzuen izaera solemnearekin aurrez aurre, honako honetan umore adimentsua, ia bihurria, da nagusi, baina lanketa formal fina baztertu gabe.

*Allegro vivace e con brio* maisuki orekatutako sonataren adibide bat da. Musikagileak ustekabeko aldakuntzak, doinuen desplazamenduak eta bat-bateko biraketak sartzen ditu, egituraren argitasuna galdu gabe. *Allegretto scherzando*k, sinfoniaren mugimendu ospetsuenetako batek, ironia finez aipatzen du metronomoaren erritmo mekanikoa -Maelzelen asmakizuna, berria garai hartan-, nahiz eta benetako xarma zehaztasun erritmikoan eta arintasun kristalinoan datzan. *Tempo di minuetto*k XVIII. mendeko gorte-dantza berreskuratzen du, baina Beethovenek noblezia eta halako kutsu nostalgikoz janzten du, maitasunez begiratzen diola iraganari. Amaierako *Allegro vivace*a jenialtasunezko zurrunbilo bat da, eta musikagileak etengabe egiten ditu kontraste-jokoak, sarrera faltsuak eta modulazio azkarrak; azkenean, ezin eutsizko gogo-berotasunarekin amaitzen du.

"Zortzigarren sinfoniak" Beethoven intimo eta aske bat irudikatzen du, ez hain solemnea, baina sakontasun berekoa: heldutasun bete-betean zela, irribarre egin zezakeen, baina harritu gabe.

**ARAU OROKORRAK**

Programa honek aldaketak izan ditzake. Kursaal Eszenak ez du bere gain erantzukizunik hartuko programa, interprete edo datetan aldaketarik gertatuz gero. Kontzertu bat bertan behera uztea izango da sarreren zenbatekoa itzultzeko arrazoi bakarra.

Antolakuntzakoak ez diren pertsonek debekatuta dute argazkiak, filmazioak edo grabazioak egitea eta, oro har, telefono mugikorrak areto barruan bozgoran piztuta edukitzea.



# Orquesta de los Campos Elíseos

**Philippe Herreweghe,** zuzendaria

Otsaila **2026** Febrero
Asteazkena **04** Miércoles / **19:30**
Auditorio **Kursaal** Auditorioa

## INTEGRAL DE LAS SINFONÍAS DE BEETHOVEN (IV)

**I**
**Ludwig van Beethoven (1770-1827)**
SINFONÍA Nº2 EN RE MAYOR OP.36
Adagio molto – Allegro con brio
Larghetto
Scherzo (Allegro)
Allegro molto

**II**
**Ludwig van Beethoven**
SINFONÍA Nº8 EN FA MAYOR OP.93
Allegro vivace e con brio
Allegreto scherzando
Tempo di minuetto
Allegro vivace

**Empresa Elkartua /** Empresa Asociada:

herza
BRANDING & COMUNICACIÓN



Compuesta entre 1801 y 1802, la "Segunda sinfonía" pertenece al Beethoven temprano, pero ya anuncia con claridad la energía expansiva y el ímpetu expresivo que marcarán su madurez. Su gestación coincidió con la crisis personal del compositor reflejada en el Testamento de Heiligenstadt; sin embargo, la obra irradia una sorprendente vitalidad. Ese contraste ha sido a menudo interpretado como un acto de afirmación interior: Beethoven, enfrentado a la pérdida de audición, parece volcar en esta sinfonía una voluntad de luz y de equilibrio.

El *Adagio molto - Allegro con brio* combina una introducción majestuosa con un *Allegro* de impulso rítmico incisivo, donde la orquesta dialoga con una energía casi teatral. El *Larghetto* es uno de los pasajes más líricos del joven Beethoven: su melodía se despliega con calma, sostenida por una textura transparente que recuerda la serenidad bucólica de futuras obras. El *Scherzo* supone una modernización del minueto tradicional: su carácter vivaz, los acentos inesperados y el humor rítmico desconcertaron a los oyentes de la época. El *Allegro molto* final cierra la sinfonía con un optimismo radiante, impulsado por síncopas juguetonas y una escritura que combina elegancia y brío.

Beethoven calificó su "Octava" como *una pequeña sinfonía en fa mayor*, pero bajo ese aparente diminutivo se oculta una obra de extraordinaria concentración e ingenio. Compuesta en 1812, la pieza muestra a un Beethoven dueño absoluto de sus recursos, capaz de jugar con la tradición clásica sin renunciar a la originalidad. En contraste con el carácter solemne de otras obras de la misma década, aquí reina un humor inteligente, casi travieso, que no excluye una refinada elaboración formal.

El *Allegro vivace* e con brio es un ejemplo de sonata magistralmente equilibrada, en la que el compositor introduce variaciones inesperadas, desplazamientos acentuales y giros repentinos sin perder nunca la claridad estructural. El *Allegretto scherzando*, uno de los movimientos más célebres de la sinfonía, parece aludir con fina ironía al ritmo mecánico del metrónomo -el invento de Maelzel, entonces reciente-, aunque su verdadero encanto reside en su precisión rítmica y ligereza cristalina. El *Tempo di minuetto* recupera la danza cortesana del siglo XVIII, pero Beethoven la reviste de nobleza y cierto aire nostálgico, como una mirada afectuosa al pasado. En el *Allegro vivace* final, un torbellino de ingenio, el compositor despliega un juego continuo de contrastes, falsas entradas y modulaciones rápidas que culminan en una conclusión de irresistible entusiasmo.

La "Octava" representa a un Beethoven íntimo y libre, menos solemne pero igual de profundo: un creador que, en plena madurez, puede permitirse sonreír sin dejar de sorprender.

**NORMAS GENERALES**

Programa susceptible de modificación. Kursaal Eszena declina cualquier responsabilidad en el caso de modificación de los programas, intérpretes o fechas de los conciertos. La suspensión de un concierto será la única causa para la devolución del importe de las localidades.

Está totalmente prohibida la toma de fotografías, filmaciones y grabaciones a personas ajenas a la organización, así como mantener con sonido los teléfonos móviles en la sala.